

Bezeroak, proiektua aurrera eramateko beharrezko subjektuak dira, zeintzuk aktiboki parte-hartuko duten eta ekintzak beraientzako prestatuko diren. Bezeroak erdigunean jarriko ditugu, haiek izango baitira iparrorratza. Premien arabera sortu eta egingo ditugu ekintzak. Aurrekoa bermatzeko, garrantzitsua izango da bezeroekiko harremana hurbila, konfiantzazkoa eta gune seguru batetik abiatuta izatea..

Taldean lan egingo dugu, hau da, komunitate izaera zein elkar zaintza sustatuz eta aldi berean, arreta pertsonalizatua eskeiniz. Gure lana haien premiak identifikatzea izango da eta ondoren, asetzea bai maila komunitarioan eta baita maila pertsonalean. Hori dela eta ekintzak horren arabera planifikatuko ditugu. Gure helburuetako bat, denok parte-hartzea izango da, zeinetan oztopoak aukera bezala bilakatuko diren. Ekintza bat aurrera eramateko orduan, baliabide anitzak eskainiko ditugu, hau da, emaitzara heltzeko bide bat baino gehiago aukerak eskaintzea.

Adibidez, ekintzetako bat saskibaloira jokatzera bada eta norbait gurpildun aulkian badago, saskiak pixkat baxuago kokatu ditzakegu, beti ere, erreztasuna eta autonomia sustatuz. Beste ekintzetako bat hondartzara joatea izango da. Beti ere, hondartza horretan egurrezko pasarelak daudela bermatu beharko dugu, eta hortaz gain, makulu anfiboak, aulki anfiboak eta aparkaleku erreserbatuak. Ekintzen bitartez ere, naturaren zaintza oinarrituko gara, hala nola, loreak landatuz. Loreak landatzeko lurra erabili beharko da eta norbaiti nazkaematen badio lurra eskuekin ukitzea, pala txikitxoak eskainiko dizkiegu. Borobilduz, nahien eta beharrianen arabera baliabideak eskaintzen joango gara gaitasunetara egokituz.

Arlo komunitarioan aldiz, sensibilizazioa aurrera eramateko gizartean ematen diren oztopoak ikertu eta horren arabera, hainbat ekintza burutuko ditugu. Balioetan adierazi dugun bezala, gazteek bizi duten bi errelitate ezberdinak mahaigaineratu nahi ditugu, elkarren arteko sozializazioa aberastu zailtasunak alde batera utziz. Sareak indartu eta handitu nahi dugu. Guzti hau aurrera eramateko garrantzitsua izango da gabezia edota zailtasun horiek identifikatzea. Eginkizuna bermatzeko eta analisia errealia izan dadin, bi talde elkartuko ditu, alde batetik, "normaltasunaren" barruan kokatzen direnak eta bestetik, "normaltasunetik" at dauden 12-20 urteko gazteak. Era honetan, bizipen ugari kontrastatu, egiatzatu, komentatu eta ezagutu ditzakegu. Azken finean, urte tarte horretan sozializazio prozesua eta talde bateko kide sentitzea oso garrantzitsua eta beharrezkoa da.

Baina, nola bermatuko dugu bezeroa erdigunean egotea? Hala nola, beraien proposamenak kontuan hartuz, hau da, gustuak eta horren arabera, ekintza batzuk planifikatuz.

Laburbilduz, informazioa zuzen-zuzenean emango da, hau da, langileak bezeroengana hurbilduko gara informazioa transmititzeko, era honetan, txarto ulertuak ekidituko dira eta zalantza bat izanez gero momentuan argituz